



**Web 2.0 ingurunean erabiltzen diren hitzik esanguratsuenen definizioa biltzen da hemen.**

A

**ATOM:** RSS jarioen antzeko XML formatua da.

B

**Bitakora:** Nabigazio-egunkaria esateko modu laburtua; gaur egun, blog edo weblog bat izendatzen du.

**Blog:** Egunkari eran idatziriko web orrialdea; sarrerak kronologikoki agertzen dira eta autore bakar batek edo gehiagok eginak izan daitezke.

**Blogari:** Blog bat duen pertsona.

**Blogosfera:** Blog guztiak komunitate edo sare berean biltzen dituen terminoa.

**Blogroll:** Web bateko autoreari interesatzen zaiozkion blog edo web orrien zerrendak osatzeko dagoen sistema.

C

**Content Management System (CMS):** Edukiak kudeatzeko sistema, honekin gure bloga eguneratu dezakegu Internetera konexioa duen edozein ordenagailutatik.

**Creative Commons:** Lizentzien sistema malgua eskaintzen duen irabazi asmorik gabeko erakundea. Lizentzia hauek egileek beren lanak sarean nola zabaldu eta partekatuko dituzten zehazten dute.

E

**Erabiltzaile:** Internet erabiltzen duen edozein pertsona.

**Etiketa-lainoa:** Web orri batean lantzen diren gaien inguruko etiketa multzoa. Horien tamaina testuan duten garrantziaren arabera da.

**Etiketa:** Ikus Tag.

F

**Foro:** Online eztabaidara bideratuak dauden Internet zerbitzuak. Fotolog: Orokorrean irudiez osatua dagoen bloga.

### G

**Grooming:** Internet bidezko sexu-jazarpena da, helburu sexuala lortzeko heldu batek adin txikiko bati jazartzen diona.

### H

**HTML:** Web orriak programatzeko hizkuntza.

### K

**Komunitatea:** Web 2.0 zerbitzuak erabiltzen dituzten eta antzeko gustuak dituzten erabiltzaileek partekatzen duten gunea.

### L

**Laster-markak:** Ikus Markadore sozialak.

**Lizentzia:** Argitaratutako informazioaren baldintzat arautzen dituen baimena.

### M

**Markadore sozialak:** Erabiltzaileari interesgarri suertatzen zaizkion web orrien helbideak aukeratu, antolatu eta sailatzeko Internet zerbitzua.

**Microblogging:** Mezu laburrak idazteko web plataforma.

P

**Permalink:** Izen hau jasotzen du artikulua edo 'post' bat argitaratzerakoan honek jasotzen duen helbideak.

**Podcast:** Erabiltzaileak Mp3 formatuak entzun ahal izateko audio edo bideo artxiboa.

**Post:** Testu, irudi edo audio erako blog batean argitaratu daitekeen sarrera.

R

**RSS jarioa (Really Simple Syndication):** Erabiltzaileari webgune edo blog bateko gaurkotzeen berri jasotzeko aukera ematen dion datu formatua.

S

**Sare soziala:** Harremanak mantentzeko balio duten Internet esparruak.

**Social bookmarking:** Ikus Markadore sozialak.

**Spam:** Helbide elektronikora iristen zaizkigun desio ez ditun edo igorle ezezaguna duten mezuak.

### T

**Tag:** Egileek Interneten argitaratzen dituzten edukiei atxikitzen dizkioten hitz-gakoak.

**Technorati:** Blog bilatzaile espezifikoa.

### U

**URL (Uniform Resource Locator):** Web orri baten helbidea.

### W

**Web 1.0:** Internet garaiko lehen belaunaldia. Web mota estatikoa da. Bertako orriak ez dira eguneratzen eta bera eratzeko erremintak HTML eta GIF erakoak dira.

**Web 2.0:** Tim O'Reilly-k 2004. urtean partaidetza sozialaren bidez eraldatzen diren Interneteko aplikazio definitzeko sortu zituen zerbitzuak, hau da, Web 1.0 Internet estatikoaren ondorengoa.

**Webgunearen mapa:** Web orri bateko orrialde zerrenda da.

**Weblog:** Ikus Blog.

**Wiki:** Erabiltzaile batek baino gehiagok edita dezakeen gai zehatz bateko kolaborazio webgunea.

Z

**Ziberbulliyng:** Berdinen artean gertatzen den Internet bidez egiten den eskola-jazarpa.